

Porto Alegreko (Brasil) aurrekontu parte-hartzailea: hirugarren bidea, hirugarren munduan?

Iñaki Barcena

Zientzia Politikoetako irakaslea eta ikertzailea. Parte Hartuz taldeko kidea

Brasil eta bereziki Porto Alegre hiria erreferentzia-puntu sendoa izan da azken hamabost urteotan demokrazia parte-hartzailearen ikertzaileentzat. Porto Alegreko alkate petista baten hitzak erabiliz, orain arte burututako esperientzia iraultzaileek, nahiz eta hasieran desberdintasun sozialak gutxitzeko asmatuak izan, azken batean aldatu duten gauza bakarra izan da «gutxi batzuen ugaritasunaren mundua, gutxi guztientzako munduaren truke». Bere ustez, Estatuak ez da hobetu, demokrazia ez da sakondu eta parte-hartze politikoa ere ez. Herritarren kontzientzia-maila ez da altxatu eta ez zaio onartu gizartearen katebegi sentitzea. Ez da zapalkuntza amaitu ezta egoismoa, arrazismoa eta sexismoa ere. Ideal duinetan oinarrituta baziren ere, iraultza horiek ez zituzten beren helburuak lortu. Eta gure galdera da: azken hogeitun urteotan, Latinoamerikatik heldu zaizkigun parte-hartze politikoaren formula berriak zertara datoz, gatazka sozio-politikoak saihestera ala gatazka birplanteatzera?

Over the last fifteen years, Brazil, especially the city of Porto Alegre, has become a strong point of reference for researchers of participatory democracy but that has not always been the case. In using the words of a petista mayor of Porto Alegre, up to now, the only thing that the revolutionary experiences that have been happened have done in the very end —despite the fact that they were aimed at lowering social differences at the onset— has been to achieve a world of plenty for a few in exchange for a world with a little for everyone”. In his opinion, the State has not improved, democracy has not deepened, not has political participation. Citizens’ awareness has not gone up and taking it to be a societal link has not been accepted. Oppression has not ended nor have selfishness, racism, and sexism. Despite their being based on ideal principles, those revolutions have failed to achieve their goals. Our question is, over the last twenty years, have the new formulas for political participation that have come our way via Latin America been to avoid social and political conflict or to re-formulate the conflict?

1. Nolako bidea da “hirugarrena”?

Historian zehar ezkerren eta eskuinaren arteko lehiak eta liskarrak topa daitezke, kontzeptu politiko hauexek jaio eta erabili baino lehen. Esklabotzaren aurka, erlijio-askatasunean edo justizia sozialaren aldeko borrokaldietan, adibidez. Jaio eta gero, Parisko “Jeu de Balle” frontoian sortutako adierazpide dikotomikoak 200 urte hauen ibilbidean oso sakonki finkatu ziren, batez ere Bigarren Mundu Gerraren ostean bloke edo esparru edo sistema kapitalistaren aurrean estatu sozialisten esperientziak kokatu zirenean. Alemania, Yemen, Korea edo Vietnam biak, hain zuzen, enfrentamendu ideologiko eta geostrategiko horren isla izan ziren, Sobietar Batasunaren desagertzea gertatu arte. Gorbatxov-ek 1985ean hasitako erreformek (*glasnot* eta *perestroika* hitzekin ezagutuek) sei urte geroago fruitu politiko anitz eta alde zuzenak ekarri zituzten, besteak beste, Sobietar Batasunaren desintegrazioa eta eredu sozialistaren gainbehera.

Aurreko sistema bipolarrak, mende erdian ezarrita egon eta gero, egoera berri bati eman zion txanda eta sasoi berriak birkokapen edo berregokitzapen ideologiko berri baten premia ekarri zuen eta halaberrez “Hirugarren bidearen” teoria asmatu egin beharra zegoen, Francis Fukuyama-k iragarritako “Historiaren bukaera” (The Nation, 1989) ez onartzearen.

Merkatu kapitalistaren nagusitasun ia-ia monopolistikoaren eta iraultza sozialistaren erakargarritasunik ezaren artean, erdibidean, mundu postmodernoa eta postindustrialak ekarritako kontrasesan sozio-politiko berriei erantzun egokia bilatu behar zitzairen. Zeregin horietan murgildurik Anthony Giddens soziologo britainiarrak bere espekulazio filosofiko-politikoak eskaini zizkion gobernu laboristari eta hortik edan zituzten Europako sozialdemokrata guztiek, Alemaniatik Espainiara.

Estrategia politiko berri horretan globalizazio ekonomikoaren eta teknologia berrien papera funtsezko bihurtzen dira eta horiei loturik, gizartearen destradizionalizazioa. Giddens-en hitzetan esatearren, espazioaren eta denboraren arteko separazioa. Horregatik, naturala eta tradizionala zenaren aurrean, identitate berrien sorkuntza dela eta, hausnarketa eta nortasun berriak dira fenomeno nagusiak. Ikusten denez, hirugarren bidea, oso *eurozentrikoa* dugu, nolabait esanda, hirugarren munduko kontuak ahaztuta utzi baitzituen bere analisisetan eta pronostikoetan.

Heinz Dieterich-ek ez dio inongo berritasunik sumatzen Giddens-en saio teorikoari, bere ustez Giddens-en intentzioa eta E. Berstein-ena gauza bera dira, teoria aldatu errealtatearen aldaketan arabera, errealtateak teoria desagokitu egiten duenean. Beraz sozialdemokraziak berriztatze bat behar zuen keynesianismoaren bukaeraren eta sozialismo sobietarraren porrotaren ondorioz (Dieterich, 2000).

Baina bipolarismoaren bukaerak “Hirugarren bidearen” beharraz aparte, zenbait pentsalariren ustez, Ulrich Beck kasu, politikaren berrindartze bat ekarri zuen, gatazka soziopolitikoaren berdefinizioa eta boterea eta legitimazioaren *paradoxa*¹. Latinoamerikan esaterako, Kuba eta Nikaraguatik at, beste herrialdeetan Sobietar Batasunaren desagertzea, haize freskoak ekarri zituen ezkerreko

1. Beck, U: “El poder de la impotencia”, *El Pais*, 2001/1/19.

alderdientzat. José Arico txiletarrak, adibidez, Gramsci-ren ereduari jarraituz, 80ko hamarkadan Latinoamerikako ezkerre *borroka kultural* batean sartuta zegoela zioen, non *iraultza* terminoak erreferente ideal moduan ez zuen baliorik. Ezkerraren zeregina, proiektu kontrakultural bat definitzea zen, ez helburu politikoen zerrenda soil bat, eta proiektu kontrahegemoniko berri horren ardatz nagusia demokraziaren berrasmaketa izan behar zen, merkatuaren eta Estatuaren logikatik harago (Chavez eta Goldfrank, 2004:18-19).

Brasilera joanik eta Tarso Genro Porto Alegreko alkate *petistaren* hitzak erabiliz, orain arte burututako esperientzia iraultzaileek, nahiz eta hasieran desberdintasun sozialak gutxitzeko asmatuak izan, azken batean aldatu duten gauza bakarra izan da «gutxi batzuen ugaritasunaren mundua, gutxi guztientzako munduaren truke». Bere ustez, Estua ez da hobetu, demokrazia ez da sakondu eta parte-hartze politikoa ere ez. Herritarren kontzientzia-maila ez da altxatu eta ez zaio onartu gizartearen katebegi sentitzea. Ez da zapalkuntza amaitu ezta egoismoa, arrazismoa eta sexismoa ere. Ideal duinetan oinarrituta baziren ere, iraultza horiek ez zituzten beren helburuak lortu.

Eta gure galdera da: azken hogeit urteotan, Latinoamerikatik heldu zaizkigun parte-hartze politikoen formula berriak zertara datoz, gatazka sozio-politikoak saihestera ala gatazka berriz planteatzera? Giddens-en “Hirugarren bidetik” doaz ala ezkerraren berpizte kritikotik abiatzen dira?

Daniel Chavez-ek dioenez (Chavez eta Goldfrank, 2004:17), gaur egun ez da gauza sinplea benetako politika alternatiboak eta pentsamendu hegemonikoa —*bakarra* I. Ramonet-en berbetan— bereiztea. Orain dela bi hamarkada aise desberdintzen ziren eskuinaren eta ezkerraren diskurtso eta eduki politikoa, gaur egun merkatuaren aldekoek ezkerraren politika berriak zurrupatu egin dituzte eta “erkidego parte-hartzailea”, “gizarte zibila” edo “deszentralizazio” terminoak lider kontserbadoreen ahotan topatzen ditugu, Erresuma Batuko Toni Blair-engandik Hegoafrikako Thabo Mbeki-renganaino, Munduko Bankuko zuzendari James Wolfenshon-engandik, pasatuz. Dena den, ezin dugu ukatu mundu osoan talde eta gizarte-mugimendu anitz ari dela saiatzen politika demokratikoen birdefinizioarako oinarritzeko aldaketak bultzatzen. Goazen, bada, ikus eta ikastera Brasilgo eskarmentu parte-hartzailea zertan den, esperientzia horretatik alde positiboak xurgatzera eta negatiboak ahal den neurrian ekiditera.

Brasilgo esper/antza/ientzia: o Partido Dos Trabalhadores

Brasil, eta bereziki Porto Alegre hiria, erreferentzia-puntu sendoa izan da azken hamabost urteotan demokrazia parte-hartzailearen ikertzaileentzat. Ez da beti horrela izan. 1989. urteko udal-hauteskundeetatik hona, martxan jarritako prozesu parte-hartzaileek, batez ere udalerrietan baina estatu federaletan ere, diktadura luze baten ondorengo demokrazia *zaindu* eta *murriztua* ordezkatu nahi izan zuten. Hogeita bat urteko (1964-1985) diktadura militarrek sasoi demokratiko berrian utzitako herendentziaren ezaugarriak ziren klientelismoa eta korporatibismoa. Eta gaur egun ere, horiexek dira bai Brasilen eta Latinoamerika osoan zehar ere, Estatuaren eta gizartearen arteko harremanen eredu politiko arruntenak. Hots,

elite politiko-ekonomikoek Estatu erabiltzeko ahalmena dute gizarte-taldean nahi parte-hartzaileak euren kontrolpean eduki eta maneiatzeko.

Klientelismoa izan da Brasilgo errepublikan eta bere udalerrietan, baita Porto Alegren ere, nagusitu zen eredu politikoa 80ko hamarkadaren erditik aurrera, diktadura militarra bukatu ostean. Estatu brasildarraren berregituraketarekin batera demokrazia ordezkatzailea eta udal-deszentralizazioa etorri ziren eta modu horretan tokian tokiko lider politiko berriek aukera berriak profintatu zituzten klientelismo eta kooptazioaren politikak aurrera eramateko, auzo eta herrietako lider aktibisten kontrola lortuz.

Modu horretan 1985. urteko udal-hauteskundeak izan eta gero, udalbatza berriek faborezko tratuen alde egin zuten, erabakiak gardentasunik gabe eta herritar eta auzune aberatsen aldeko neurriak hartuz, Brasilgo herritar txiro eta behartsuei, oraindik oso talde handia zirenei, bizkarra emanez. Hala eta guztiz ere, diktaduraren azken txanpan, gizarte-mugimendu indartsuak sortu ziren Brasilen eta, Euskal Herrian 1970eko hamarkadan bezala, auzoetako oinarrizko azpiegiturak errebindikatzen zituzten, eskola eta osasun-zentroak, kale asfaltatuak eta etxebizitza duinak, hirigintza antolatua eta garraio publikoa, hitz batez, bizi-kalitatea.

Klientelismoa izan zen auzo pobreetako ekimen kritiko eta mobilizatzaileen aurkako medizina, herritarren protesten aurkako txertoa. Testuinguru horretan, 1988ko aldaketa konstituzionala aprobetxatuz, hau da, udalen autonomia eta finantziario-bide berriak erabiliz, Langileen Partiduak (PT) Brasilgo hainbat udal garrantzitsutan hauteskundeak irabazi eta gero², klientelismoaren aurkako politika martxan jartzeko aukera izan zuen, herritar alboratuen aldeko politika berrindartuz —*empowerment*—, kudeaketaren gardentasuna sustatuz eta gizarte zibilaren aurrean ateak zabalik edukitzeko agindua emanez.

Sasoi honetan ezker *brasileiraren* emaitza elektoral onak eta auzo-elkarte eta mugimenduen ahultze eta atzerakadak batera ari ziren gertatzen eta alde bietako indar-batuketak posible egiten zuen, prozesu sinergiko batean legez, *bestelako* eredu demokratiko bat, parte-hartzaileagoa eraikitzen hastea.

Zaila egingo zaigu ulertzea nola Brasilen eredu parte-hartzaileen aldeko apustua egiten den, batez ere udal-esparruetan, ulertzen ez badugu nolakoak diren PTren jaiotza, bere barruko antolamendua eta ekintza politikoaren jokamoldeak. Alderdi honek aurten 25 urte bete dituela irakurri berri dugu komunikabideetan eta bere hastapenak Sao Pauloko inguruko hirietan —ABC izenarekin ezagutuak (Santo André, Sao Bernardo eta Sao Caetano do Sul)— kokatzen dituzte, sindikalista, ezkerreko kristau, gerrillero ohi, feminista eta ekologisten eta bestelako gizarte-mugimendu eta ezkerreko erakundeen arteko batuketaren ondorioz. Hetero-ogenitate horretatik sortu zen alderdi bat non helburu nagusia demokrazia barnera zein kanpora hedatzean zetzan. Bai alderdi politikoaren dinamiketan eta korrante desberdinen arteko harremanetan bai instituzio eta beste gizarte-mugimendu edo erakundeekiko jardueretan.

2. Hauteskunde-sistema desberdin bat izateagatik, Brasilen udal-hauteskundeetan bi instituzio aukeratzen dira, udal legislatiboa (Camara de Vereadores) eta alkatetza presidentzialista (prefectura) —exekutiboa azken hau— izen bakarreko zerrendetan eta bi itzulietan.

Diktadura politiko batean sortua, PTren ezaugarri nagusietariko bat ezkerren eredu bertikal, burokratiko eta autoritariotik aldentzea izan da. Brasilgo sistema politikoa presidentzialista izanik, lider karismatiko baten beharra eduki zuen alderdi berri honek eta Brasilgo presidentzia lortu arte (2002) saio eta hauteskunde-prozesuetan mundu osoan ezaguna egin da Luis Inazio Lula da Silva, langile metalurgiko eta sindikalista, orain gobernu-buru bihurtu dena. Horrek esan nahi du PT ezkerreko alderdi handiena bihurtu dela eta alderdi arteko aliantzen politika oso irekia eta eraginkorra eraman duela, gobernu lortu arte.

1989an zenbait alkatetza lortu zituenean, kargu instituzional *petista* horiekin batera bere diskurtso ezkertiarra eta bere programa eraldatzailea praktikan jartzeko aukera eta froga gogorak ere heldu zitzaizkion. Berehala arazoak eta liskarrak etorri ziren, politikagintzan normala denez.

Brasilen, eta gainerako herrialdeetan ere instituzio estataletatik gizarte zibilaren indartze-prozesuak goitik behera bideratzen direnean, batzuetan, porrota eta erakunde sozialen ahulezia eragiten da. Brasilen historikoki gizarte-mugimendu eta aktibista sozio-politikoaren aurkako errepresioa eta herri-elkarteen kooptazio eta erregulazioa tartekatu dira, baina beti mugimendu sindikala zein auzo- eta nekazari-elkartek Estatuaren kontrolpean edukitzeko asmoz.

Horregatik ere, logikoa da guztiz, Brasilgo herri-mugimenduen partetik, esperientzia horiek kontuan izanik, independentzia eta gizarte-mugimenduen autonomia defendatzea, alderdi eta administrazioarekiko. Berezi mobilizazio sozio-politikoaren sasoi edo epealdi ahul batean eta administrazioak *top down* edo goitik beherako dinamikak planteatzen dituztenean. Horrela gertatu zen PTK *pre-feiturak* lortutako hainbat hiritan non ordurako gizarte-mugimendu eta elkarteekiko alderdi eta lider politikoei ereindutako harremanak, klientelismoan gauzatu egin ziren. Eta mesfidantzek jarraitu zuten.

Halabaina, leku batzuetan, PTK zuzendutako udal-esperientzia batzuetan —guk kasu eredugarri bat aztertu nahi dugu, Porto Alegrekoa hain zuzen—, Estatuak etorritako laguntzak eta irekierak gizartearen parte-hartze politikorako harreman klientelisten ordeztu, elkarte eta erakunde herritarren sendotzea bilatu dute, hortik jaiotako Estatuaren aurreko herritarren mugimendu aktibo eta errebindikatzaile bat. Udaletxe batzuen praktikaren emaitza, nahiz eta minoria hutsa izan, gizarte zibil iratzartu eta eratuagoa izan da.

PTren alkatetzak ugalduz joan dira Brasilen (1982an 2, 1988an 36, 1992an 84, 1996an 111, 2000n 187 eta 2004an 411) eta azken udal-hauteskundeetan, alde batetik, Sao Paulo, Belén eta Porto Alegre galdu bazituen ere —azken horretan hamasei urtetan gobernatu eta gero—, bestetik, Recife eta Belo Horizonte mantendu eta Fortaleza eta Vitória irabazi zituen, horrela 9 estatu-hiriburutan udal-gobernua edukiz eta lehen eta bigarren bueltan boto gehien lortu duen alderdia izanik.

Ikusten denez, hogei urte hauetan PTren udal-esperientzia politikoak emankorrak izan dira oso. Hasieran ezkerreko alderdi honek topatzen zituen auzo-elkarte gehienak, itxiak, ez parte-hartzaileak eta klientelistak ziren, diktaduraren osteko

panorama politikoan aurkitzen ziren talde herritarrak oso zatikatuta zeuden eta interes partikular eta tokian tokikoak baino ez zituzten erakusten.

Jauzi kualitatiboa izan zen, dudarik gabe, PTK eman zuena 1989an berak gobernatzen zituen hainbat udaletan Aurrekontu Parte-hartzaileak martxan jartzean. Hamar bat izan ziren 1989-1992 legealdian (Torres eta G. de Grazia, 2003:19), Sao Paulo, Santos, Santo André, Ipatinga eta Porto Alegre, besteak beste.

Udal-aurrekontuen inguruko eztabaida eta prozesu erabakitzaileen hasierako emaitzak urriak eta desberdinak izan ziren. Diktadura ondoko lehengo prozesu asanbleario eta herri-batzarretan auzokideen eskakizunen eta hiri-premien zerrendak egiten ziren: etxebizitza, osasuna, garraioa, kaleen zoladurak... baina udal-errekurtso ekonomikoek ez zuten horrenbesteko ematen. Hasierako ilusioak eta parte-hartze herritarren batzar kopurutsuak urtu egin ziren, jendeak ez zuen ulertzen ezkerreko politikariek azaldu nahi zieten: jendea prestatu behar zela gai eta arazo politiko konplexuagoetan, adibidez, udal-errekurtso faltaren zergatietan, jatorriak topatu eta soluziobideak martxan jartzeko.

Zenbait hiritan esperientzia hau kontuan harturik eta publikoaren erantzun kaskarra ikusirik, demokrazia parte-hartzailerako mekanismoak baztertu egin ziren, lehengo legealdi hartan bertan (1988-1992). PTren barnean ere istiluak sortu ziren. Parte-hartzea eta udal-aurrekontuen perspektiba ez zen berdin ikusten, udaletik, alderditik edo kaletik. Alderdiko militante askoren ustez, batez ere egituretan kargu edo erantzukizunen bat zutenen ustez, familia edo korrante politikoaren arteko lehiak, programari errespetua, hautatuen jardueren kontrola edo instituzioetan egiten zen lanaren ikustatzea garrantzi handiko kontuak ziren; aldiz, instituzioetan murgilduta ziren kargu *petisten* aburuz, hots, alkate, zinegotzi zein teknikarien aburuz, gobernuaren arazoak, aparatu administratiboaren funtzionamendu egokia edo hautesleen aurreko erantzukizunak lehentasunarekin landu behar ziren.

Alderdiaren barneko tentsioa eta krisi horiek zirela medio, aurrekontu parte-hartzailearen prozesuak bertan behera gelditu ziren leku batzuetan, alderdiko sektore bi horien —alderdiko aparatua eta udal-hautetsiak— arteko logikak oso desberdinak batziren. Bitxia bada ere, PTK 1989an gobernatzen zituen 36 alkate-tzetatik 12tan alkateek kargua utzi edo kargutik kendu zituzten agintaldia bukatu baino lehen, heren horretan lehiak eta liskarrak tamaina handikoak izan zirelako.

Brasilen 1988ko erreforma konstituzionalak errekurtso ekonomiko eta deszentralizazio gehiago ekarri zituen udalerrietara. Horretaz baliatuz, PT saiatu zen erreforma fiskalak eta diru-bilketa handiagoei ekiten lege berriak profitatuz, baina kasu gehienetan, udalerrietako kontuak zenbaki gorritan aurkitzen ziren. Eguneroko funtzionamendu-gastuak kenduta, burokratiko-administratiboak alegia, aurrekontuen atal nagusiak izanik, oso diru gutxi gelditzen zen herritarrek ezarritako lehentasunetan banatzeko.

Hala eta guztiz ere, eta zailtasun horiek ahaztu gabe, azpituluan idatzitakoaren arabera, gaur egun Brasilgo PT eta bere esperientzia demokratiko parte-hartzaileak erreferentzia politiko berriak bihurtu dira mundu osoan. Latinoamerikan azkeneko 20 urteetan izandako bizipen politiko ugari eta emankorren artean

deigarriena dugu³, udal-esparruetan batez ere, gizartearen eta Estatuaren arteko harreman berriak antolatuz.

Brasil oso herri aberatsa dugu, munduko 7. potentzia ekoizlea baina dituen 177 milioi biztanleetatik 40 milioi inguruk gosea pasatzen dute egunero, bost herritarretik batek. Gizarte bikoitza da beraz, industrialak eta batera *favelaz* beterikoa, non herri-antolamendu politikoarekin batera klientelismoa oso nabarmena den eta ez-kerraren kultura politiko parte-hartzaile eta baketsuaren ondoan mafien biolentzia eguneroko ogiaren aurpegiaz azaltzen den. Lurralde horretan sustraitu da Lula-ren alderdia. Errejimen militar autoritario batean sorturik, alderdi horretan bildu ziren jatorri askotatik heldutako aktibistak eta diktadura batetik demokrazia defizitario batera igaro ziren. Agian horregatik demokraziaren zentzu sakona defendatu dute hasieratik, demokrazia politiko edo ordezkatzailerik demokrazia erreal edo sustantiboarekin batera, baita demokrazia parte-hartzailea ere, M. Harnecker-en planteamenduei jarraituz (Harnecker, 2000:326-327). Edo Adolfo Sánchez Vázquez filosofo marxistak dioenez, demokrazia ordezkatzailerik edo delegatuaren eredu abolitu gabe, zuzeneko demokraziaren errebindikazioarekin eredu hori aberastuz eta osatuz (Sánchez Vázquez, 1991:59-76).

Alderdi barruko dinamiketan ere askotariko tendentzia edo familia politikoak egon dira, hainbat iritzi-korronte ordezkaturik. Dena den, PTren barneko araudian frakzioak, hots, alderdi barneko alderdiak debekatuta daude. Eredugarria izan da, gutxienez Brasiliako gobernuak lortu arte, joera desberdinen arteko errespetua eta funtzionamendu demokratikoa aniztasunaren baitan. Kongresuetan adibidez hamar bat joeraren testuak banatu ohi dira, zuzendaritzaren tesi "ofizialekin" batera. Porto Alegreko kasuan, alkatea joera batekoa denean, alkateordea beste joera edo lerro politiko batekoa izaten da. Tarso Genro-ren hitzetan hauxe da alderdi sozialista moderno baten kultura politikoaren oinarria. Alderdi iraultzailea, ez autokratikoa, ez bere buruari ezta gizarteari ere bere programa modu burokratiko batez ezarri nahi ez diona.

PTren barnean elkarrekin bizi diren ideologia guztiek —gizarte mugimenduen osagarri eta ikusmoldeekin, kristauak eta sindikalistak, emakumeak eta indigenak, ekologistak eta lur gabekoak...— pluraltasunean, gardentasunean eta barne-demokrazian aurkitu dituzte gatazkak bideratzeko prozedurak.

Desafio nagusienak, aldiz, kanpora begira izan ditu PTk. Hazkunde geldigaitz batean garatu den 25 urteko alderdi hau Brasilgo exekutibora heldu zen 2002. urteko hauteskunde presidentzialen ostean. Eta normalean ezkerreko alderdi sozialistei gertatzen zaienez, hauteskundearen bitartez botere exekutiboa eskuratzen dutenean pragmatismoaren eta eraldaketa sakonen arteko tirabiretan aurkitzen dira. Udaletan eta zenbait estatu federaletan izandako esperientzia politikoek lagundu dute eskuineko alderdiek eta komunikabideek zabalduzko mezua uxatu ahal izateko, alegia, kaos eta hauteskunde-kanpainan etorreraren mamuak, baina behin boterean egonik, eta hauteskunde-kanpainan ere, Lula-ren mezu eta leloak leunagoak izan dira, "gosearen eta enpleguaren alde, abertzaletasuna eta gara-

3. Balorazioak eta alderaketak egiteko interesgarria iruditu zaigu obra hau: Chavez, D. eta Goldfrank, B. (arg.) (2004): *La izquierda en la ciudad. Participación en los gobiernos locales de América Latina*, Icaria, Bartzelona.

pena autoritarismorik gabe”. Adibidez, kanpo-zorraren afera, era diplomatikoan erabiliz, aipatu gabe.

Estatuaren egiturak ez dira neutroak eta ez dute berdin funtzionatzen kudeaketa neoliberalaren edo sozialistaren izenean, bi alderdi, bata eskuinekoa eta bestea ezkerrekoa, hauteskunderen ondorioz txandakatzen direnean. Estatuaren egiturak klase sozial, nazio eta talde etniko eta beste gatazka sozio-politikoaren isla dira eta klase eta talde etniko, erlijioso edo sexual nagusien alde egiten dute. Horretarako sortu ziren Estatuak!

Ezker-muturretik askotan kritikatu zaie PTri eta gainerako ezkerreko alderdi edo fronteei udalerrietan gobernu progresistak eratu dituztenean kapitalismoaren administrazio bakun bat baino ez dutela egin. M. Harnecker-ekin bat gatoz: jarrera ezkertiar fundamentalista horiek ez dute kontuan hartzen udal-gobernu horiek espazio berriak sortu dituztela eta bertatik baldintza politiko eta kultural berriein gizartearen erakuntza autonomo baten aldeko apustu sendoa egin dela. Mundu osoan ezagutzen dugun globalizazio neoliberalarekin batera finkatutako eredu ultrakontserbadorearen aurkako txertoa, indar-erlazioa aldatzeko tokian-tokiko errealitatetatik sortutako erantzuna.

Beste kontu bat da Brasilgo gobernu *petista* hasi denetik, zein izan diren ildo eta praktika nagusiak. PTren barnean, talde parlamentarioan eta Brasilgo gizartearen zein mundu zabalean ere ugari izan dira ezkerretik sortutako kritikak Lula-ren gobernuaren politika ekonomiko eta sozialen aurka. Lula-k hazkunde ekonomikoaren eta esportazioen zenbakiak igo ditu eta *real* dibisa indartsuagoa da 2005. urtean, baina nekazaritza-erreforma edo *Fâme Zero* programa ez doaz bide onetik eta mafiaren eta Amazoniako jauntxoaren zigorgabetasunak berdin dirau. Non daude kapitalismoaren kudeaketa sozialistaren mugak? Agian, Emir Sader soziologo brasildarrak kritikatu dionez, bi hamarkada eta erdi hauetan PTK praktika demokratiko eredugarriak ipini ditu martxan baina neoliberalismotik irteteko teoriarik ez du ekoitzi. Eta kritika hori onartuta, gure kontrakritika hauxe da: zeinek egin du PTK baino gehiago?

Dena den, idazki honen mugak eta helburuak esperientzia parte-hartzaile horiek aztertzean ipinita daude, Porto Alegreko hirian zehazki. Pentsatzen dugu hamabost urte hauetan Porto Alegren bertan eta beste hiri batzuetan metatutako eskarmentua oso baliagarria izan zitzaiola PTri Brasiliako gobernu eskuratzeko. Eta udal-praktika horietatik jaio da *governatzeko modu petista* deiturikoa, hiru osagarri dituena: herri-partaidetza, lehentasunen iraulketa eta gardentasuna (Goldfrank, 2004:255). Egia esan, gauza asko aldatu beharko ditu Lula-k gobernuan irizpide horiei eusteko. Estatu-mailako aurrekontu parte-hartzaileak ez dira pasatu egitarau elektoraletik eta bere presidentziaren ezaugarri nagusiak ez dira izan parte-hartze herritarra eta lehentasunen inbertsioa. Ikuskizun dago datozen urteetan gertatuko dena, baina bat nator Joao Pedro Stédile Lurrik Gabekoen Mugimenduko (MST) bozeramailearekin, dioenean aldaketak ez daudela Lula-ren borondatepean, zeren, Brasilgo aldaketa sozialak herriaren antolatze-ahalmenari loturik baitaude. Herria antolatzen bada eta bere eskubideen alde mobilizatzen bada, gobernu progresista izango da eta PT herriaren ondoan ikusiko dugu⁴.

4. Joao Pedro Stédile-ren adierazpenak. *Jornal do Brasil* (2003/08/03).

Porto Alegre: Brasilgo hiri demokratikoena

Brasilgo sistema elektoralak presidentzialista denez, udal-hauteskundeetan exekutibo bat (*Prefeitura*) eta talde legegile bat ere (*Câmara de Vereadores*) aukeratzen dira, non *kohabitazioa* gerta daitekeen, hau da, alkatea eta udal-parlamentuaren gehiengoa bi talde edo ideologia politiko desberdinekoak izatea. Horrela izan zen 1989an, Olívio de Oliveira Dutra, banku-sindikalista zena, PTren zerrenda-buru aurkeztu zenean. Hauteskundeak irabazi ostean, aurrekontu parte-hartzailea bere gobernu-programaren atal nabarmena zen, udal-politikaren erdiko ardatza. Ubiratan do Souza Porto Alegreko udaletxeko arduradunaren definizioan aurrekontu parte-hartzailea «demokrazia zuzen, borondatezko eta unibertsalaren prozesu bat da, non herriak aurrekontuaren eta politika publikoen gainean eztabaidatu eta erabaki ahal izaten duen» (U. de Souza, 2000). Kasu honetan, herritarrak ez du lau urterik behin botoa ematen eta kito, ez da hor soilik gelditzen bere parte-hartzea, botere exekutibo edo legegilearen sufragioaren ekintzan. Horretaz gain, herritarrak gastuen lehentasunaz erabakitzen du eta gobernuaren kudeaketa kontrolatzen du, hots, politika tradizionalan izaten duen ikusle edo bidaideren funtzioaz gain, kudeaketa publikoaren protagonista bihurtzen da.

Ariketa honek zuzeneko demokraziaren eta demokrazia ordezkatzailaren arteko zubi bat eraikitzen du; izan ere, konbinaketa bat egiten du herritarrek administrazio publikoan parte hartu ahal izateko eta Estatuaren kontrola⁵ eramateko.

Porto Alegre, Rio Grande do Sul (RS) estatu federalaren hiriburua da eta 1,5 milioi biztanle inguru ditu, bere area metropolitanoan 3 milioi pertsona bizi diren arren. RS estatu federala hegoaldeko Brasilen dago eta hango biztanleak *gaúcho* kulturaren parte sentitzen dira Argentina eta Uruguaiarekin muga egiten duelako. Hiriak industrializazio berantiar bat izan zuen eta bere egitura sozialean segregazio edo banaketa nabarmen bat bizi da erdigune modernoaren eta *favelen* periferia baten artean. Izan ere, hiriak eraldaketa sendo bat eduki du 1989tik hona, PTK udal-gobernutik esperientzia eredu-garri hau martxan jarri zuenetik.

Aurrekontu parte-hartzaileak eredu demokratiko hibrido bat ezarri du, ordezkagarritasunaren joko politikoa errespetatuz, baina korridore zabal bat irekitzen duena demokrazia zuzenaren jokorako eta gastu publikoaren herri-kontrolerako, alegia, parte-hartze herritarrerako eta gardentasunerako. Porto Alegren, PT alderdiaren barruan nagusitu den demokraziaren ereduak —eta egon diren alkateak (Dutra, Genro eta Pont) eta beren taldekideak oso funtsezkoak izan dira horretarako— demokrazia erradikalaren planteamendu zabalak eduki ditu, eskema klasista eta erakunde-lerrokatze tradizionalaren gainetik, baita siglen bilketa, elkarte edo langileen kulturaren oinarritutako interesen gainetik ere.

Baina Porto Alegre ez da uharte sozialista bat, auzo aberatsak, ertainak eta txi-roak baitaude, eta mundu guztia ez da ados egon ekimen parte-hartzaile honekin. Nahiz eta Tarso Genro-k 2000. urteko hauteskundeetan botoen % 60 lortu, eskuina ere oso eraginkorra da hirian eta komunikabideak kontrolatzen ditu

5. Brasilen *Estatu* termino politikoa erabiltzen da bai Brasilgo Errepublikak Federal osoa eta bere 26 estatu federalak izendatzeko bai lurralde bateko gobernuak daukan erakunde administratibo oro izendatzeko; horregatik erabiltzen da ere udal-mailan. Hots, ez da kontrajartzen metropolien (Brasília, Paris, Madril) administrazio zentralarekin.

(Ramonet, 2001). Egunkariak, irratia eta telebista ez daude PTren esku eta aurrekontu parte-hartzailearekiko urruntzea eta kritikak nabariak izan dira. Azken 16 urteetan aurrekontuen dinamikak ez dira ageri-agerian egon komunikabide lokal edo nazionaletan baina, hala eta guztiz ere, Porto Alegreko biztanleen % 47k aitortu du haren praktika eta funtzionamenduaren ezagutza duela.

Brasilgo diktaduraren azken urteetan auzoetan mobilizazio ugari egon zen. Porto Alegren bereziki militarren aurkako borrokak eta grebak erresistentzia indartsu baten seinale ziren. Partidu legal bakar baten barruan, Movimento Democrático Brasileiro (MDB), organizazio klandestinoak, sozialistak eta komunistak, iraultzaileak eta kristauak mugitzen ziren baina oposizioaren indarrak borroka sozio-politikoaren eremura abiatu ziren. Sindikatuek, kale- eta auzo-elkarteez, kooperatibek, futbol-taldeek, amen elkarteez eta talde kulturelek 70eko hamarkadaren erditik aurrera hiri-mugimendu indartsu bat gauzatu zuten udal demokratiakoak aukeratu arte. Tarso Genro-ren berbetan, 1988an PTK lehen aldiz Porto Alegreko alkatetza irabazi zuenean hirian mila erakunde komunitario inguru identifikatu ziren (Santos, 2003:23).

Ondasun hiritar hori ez da PTren altxorrean sar daitekeen jabegoa. Alderdi erlatiboki gaztea izanik, bazeuden beste batzuk, Leonel Brizola-ren Partido Trabalhista Brasileiro, esaterako. Alderdi populista hori udal-boterean egon zen diktadura aurretik eta bere aginpidepean 1956an Udal Kontseiluak sortu ziren hiritarren ordezkariak onartuz zenbait udal-idazkaritzatan, eta 1959an, bere bultzadarekin ere, estatu federaleko (RS) auzo-elkarteen federazioa (FRACAB) eratu zen. Alderdi klientelista hori, geroago Partido Democrático Trabalhista (PDT) bihurtu zena, PTrekin lehiatu zen herritarren parte-hartzearen aldeko politketan. Lehen udal-hauteskunde demokratikoak, 1985ean, PDTk irabazi zituen eta Alceu Collares-ek alkatetza eskuratu zuenean herritarren partaidetza suspertuko zuela iragarri zuen. Hasierako epealdian funtsezkoa suertatu zen Uniao de Associações de Moradores de Porto Alegre (UAMPA) elkarteak, 1983an sortua, eskakizun hauek egin zituelako: udal-gobernuaren demokratizazioa, gardentasuna eta egitura parte-hartzailea, beste gauza batzuen artean, hiriko auzune guztiek udalaren aurrekontuak eztabaizatzeko (Baiocchi, 2004:63).

“Se hace camino al andar” idatzi zuen Antonio Machado-k. Eta PTK horrelako iradokizun bat egin behar izan zuen 1988an 35 alkatetza lortu zituenean, alderdi barnean adostasun gutxi egon baitzen gobernatzeko ereduaz. Denon aldetik zegoen akordioa udal-aurrekontu eta finantzetan herri-partaidetza bultzatzeko, baina batzuen ustez, udal-karguek sindikatu eta herri-mugimenduen sektoreetatik ezarritako lehenetsunez eta erabakiei jarraitu behar zieten. Beste batzuen aburuz, udal-administrazioko arduradunek alderdiarekiko eta gizarte-mugimenduekiko autonomia eduki behar zuten. Lehenengoek pentsatzen zuten alderdiko militantziak udal-gobernuan nork egon behar zuen erabakitzeaz gain, beste puntu batzuk zehaztu behar zituela, «garraio publikoaren prezioa, hiriko zein auzotan egin behar ziren inbertsioak, periferian ala erdigunean» (Harnecker, 1993:22). Baina bigarrenekoek irabazi zuten, Porto Alegren udal-karguek PTrekiko autonomia izan zuten eta kontsultak hiritar guztiei egin zizkieten, ez *petistei* edo herri-elkarteei soilik.

Agian UAMPAn eta sindikatueta PDTk eragin zuzena zeukalako, Olivio Dutra alkateak argi utzi zuen «ez zela gobernatzen sektore batentzat, klase batentzat edo gizartearen atal batentzat. Guk hiria gobernatzen dugu herri-sektoretik dato- rren proposamen batekin baina beste sektore batzuekin eztabaidatu ahal dena» (Harnecker, 1993).

Batzuen iritziz hain zuzen, eta ni bat nator ideia horrekin, Porto Alegren mar- txan ipinitako eredu parte-hartzailearen arrakastaren muina hiri-sektore ez antola- tuen eta herritar bakun eta arrunten parte-hartzea izan da⁶. Egia da hori ez zela posible izango, hirian egon ez balitz herri-antolakuntzaren maila altu bat, tradizio ezkertiar eta esperientzia mobilizatzaile sendo bat, baina agian atal edo osagarri sozio-politiko guztietatik Porto Alegren garrantzi gehien izan duena, herritar ez antolatuen parte-hartzea bilatzea eta lortzea izan da. G. Baiocchi-ren ustez, horrek hiru gauza suposatu ditu: bat, pertsona parte-hartzaile aktiboak eta ordezkariak ez direla soilik izan auzo-elkarte eta gizarte-mugimenduetako eskarmentu handiko jendea; bi, hiriko bizitzan esperientzia gabeko pertsonak ere integratu ahal izan direla, eta hiru, parte-hartzaile berri horiek ekidin dituztela elkarte klientelisten jokamoldeak. Hots, sistema parte-hartzaile honetan herritar arrunt eta helduberriek ez dute desabantailarik topatu, alde zurratik sortutako elkarte eta talde formalen aurrean (Oliveira, 2001).

Sao Pauloko aurrekontu parte-hartzailearen esperientzia ebaluatzean F. Oli- veira-k “Iraultzaren Aktak” izendatutako artikulua batean hauxe dio: «Asmakizun politiko bat eskubide politiko berri baten sormenaz konfiguratu dena... dudarik gabe talde eta klase sozialek gaur aurrekontu parte-hartzailean esku-hartzea eskubide alienaezintzat jotzen dute». Boaventura de Souza Santos-ek ere gogora ekartzen du sektore herritar arrunt horien parte-hartzeak ekartzen dituen eralda- ketak sistema tekniko-administratiboan. Jende xumearen aurrean azaldu behar dira kontu tekniko-administratiboak modu ulergarri eta persuasibo batean, autoritaris- moak eta inposizioek ez dute balio, «lehen kultura tekniko burokratiko bat zegoen to- kian, gradualki kultura tekniko demokratiko bat sortu da» (Santos, 1998).

Eta modu horretan hurbiltzen gara udal edo tokiko dimentsio politikora. Glo- balizazioarekin batera globalizazioa asmatu egin zen. Javier Encina eta Montse Rosa-ren hitzetan «espazio lokalen unibertso guztietan estrategia globalizatzaileak ezartzeko asmoa, tokiko estrategia desberdinekin bere lurralde berean norgehia- goka ibiliz» (Rosa eta Encina, 2004:26). Eskuinaren interpretazioan, Estatuaren deskonzentrazioak funtzio sozialen liberazioa ekarri du eta gizartea merkatuaren *simil* edo antzeko moduan ulertu behar da, hau da, botere politikoaren *des-lurral- detasunaren* justifikazioa bilatzen da. Baina ezkeretik ere dimentsio lokalean bilatu da sistema kapitalistarekiko gotorlekua, interes politiko elektoralak antolatze- ko eremua edo Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) aldetik “izaera mikrosozia- laren reifikazioa” nazioarteko diru-laguntzak eskuratu ahal izateko (Stolowicz, 2004:224). Alabaina, aztertzen ari garen udal-esperientzia honek adierazten duenez, esparru lokal hauetan ere herri-antolaketa autogestionatuaren formak sortu dira neoliberalismoari aurre egiteko, elkartasuna eta bizitza alternatiboaren bidea urratuz. Hots, aurrekontu parte-hartzailea teknika edo prozeduraren logika

6. Hori da Gianpaolo Baiocchi-ren interpretazioa. Op.cit.

desberdin bat izateaz gain (*good governance*), edukietan, proiektu politiko askatzailearen baldintza berriak ekartzeko saioa da.

Tarso Genro-k dioenez aurrekontu parte-hartzaileak botere lokala ekartzen du gogora, Estatuaren (zentzu global eta zabalean) eredu berri bat sortzen du, ordezkapen politiko tradizionala (noizbehinkako hauteskundeak) herritarren parte-hartze zuzen eta boluntarioarekin uztartuz (Genro eta de Souza, 2000:24).

Ez da txiripaz izan Mundu Gizarte Foroa Porto Alegren antolatzea 2001, 2002, 2003 (2004an Mumbain izan zen Indian) eta 2005. urteetan. Aukeraketa sinboliko eta politikoki erakargarria egin zen nazioarteko antolatzaileen aldetik. Davosen (Suitza) biltzen den Foro Ekonomiko Globala edo neoliberalismoaren ikur eta babeslearen aurrean, bestelako erreferentzia alternatiboa eszenifikatu nahi zuten eta efektu sozial eta mediatikoa ere lortu egin da. Adibidez, askoz ere kazetari gehiago biltzen dira Porto Alegren Gizarte Foroan Davosen baino. Suitzako hiri elurtu eta poliziaz blindatuaren aurrean, Porto Alegre hiri abegikorra, demokrazia berriaren paradigma eta ahalmen antolatzaile altu batekin azaldu da. Horrela, Porto Alegren azken 16 urteotan izandako lorpen sozial eta politikoen ezagutza mundu osoan zehar barreiatu da.

Orçamento Participativo: Demokrazia deliberatiboaren isla

Raul Pont PTko alkate ohiak 2004. urteko udal-hauteskundeak galdu zituen bigarren itzulian⁷. Fogaça-k, Partidu Popular Socialistaren hautagaiak, kanpaina eta irabazi ostean argi utzi zuen bere gobernuak aurrekontu parte-hartzailea eta Mundu Gizarte Foroa mantenduko zituela. Porto Alegren hamasei urtez gobernatzen egon eta gero, eta nahiz eta Fronte Herritarraren aliantza zabalean (PTz aparte, PCdoB, PCB, PMN, PTN, PL, PSL eta bigarren itzulian PSB eta PSC baita ere) joan, PTK oposiziora joan beharko du, datozen lau urteetan.


Tokiko faktoreaz landa, PTren zuzendaritzaren aburuz galtze horretan aldagai nazional, erregional eta lokalak nahastu egin dira, hala nola Lula-ren gobernuak egindako jubilazioaren erreforma eta politika fiskala, funtzionarioen haserre bizia sortu zuena; Estatu federaleko (RS) gobernuaren laguntza (Rigotto) oposizioaren hautagaiari; komunikabideen jarrera negatiboa eta kritikoa, esaterako, osasun-zerbitzuen egoeraz; eta baita ere, azkenik baina ez txikiena, oposizioaren aldetik PTren proiektuaren ikurrak bereganatu izana. Fogaça-k bere egin ditu demokrazia parte-hartzailearen esperientzia eta aurrekontu publikoan eramandako politika, eta kontu bi horiek uzta positiboaren alorrean kokatu ditu. Dena den, gobernu aldaketaren beharra izan da komunikabideetan zabaldutako mezua eta halaxe gertatu da. Beraz, gobernu-buruen aldaketa izan da, baina duela 16 urte hasitako aurrekontu parte-hartzailearen dinamika eten gabe.

Hasieran ere, 1989an, egoera oso zaila izan zen PTrentzat. Herri-partaidetza demokratikorako bost udal-barruti ezarri ziren eta egindako batzar herrikoietan eskakizunen zerrenda luzeak atera ziren baina errekurso ekonomikoak eta eskakizunen lehentasunak kudeatzeko metodologiarik gabe (Kunrath eta Sacco, 2003:41-43). Borondatea bai baina prestakuntzarik ez. Gizarte Asistentzia eta

7. R. Pont: 378.099 boto, % 46,68; José Fogaça: 431.820 boto, % 53,32.

Hezkuntzarako Organoen Federakuntzak (FASE) kritikatzeko zuten, eztabaidetan parte hartzen zuten talde eta pertsonen itxaropenak diru-sarrerak baino askoz handiagoak ziren eta zapuzketak eta frustrazioak berehala agertu ziren. Adibide bat, proposatutako kale asfaltatuaren 42 kilometrotatik bat bera ere ez zen egin hurrengo urte fiskalean. Sasoi horretan ere, UAMPA auzo-elkarteen federakuntzak aurrekontu parte-hartzailearen kontrola eduki nahi zuen eta lortu ezinean egon zela prozesutik aparte mantendu zen urte askotan (Chavez eta Goldfrank, 2004:244).

Aurrekontu Parte-hartzailearen Diagrama



1990. urtean krisialditik ateratzeko gogoz eta demokrazia deliberatiboaren aldeko apustu sendoa eginez, eztabaida eta parte-hartzea 16 udal-barrutietan antolatu zen eta Aurrekontu Parte-hartzailearen Kontseilu (COP) bat eratu eta mar-txan ipini zen, gaur egun ezagutzen den eredia estreinatuz. 1991. urtean udalean Erkidegoarekiko Harremanen Koordinazio (CRC) taldea eratu zen eta Planifikazio Kabinetea (GAPLAN) ere.

Porto Alegreko ereduaren arabera, aurrekontu parte-hartzailea urte osoko dinamika batean antolatzen da eta herritarrek zuzenean udal-aurrekontuaren di-seinuan esku hartzeko aukera izango dute hirian banaturiko 16 barrutietan. Bertan ordezkariak esleitu dira, haien aukerak eta lehentasunak zedarritzeko. Batzarrak bi motatakoak izango dira: batzuk barrutien foroak dira eta bertan auzoko kontuak jorratzen dira, eta besteak, tematikoak, hiri osoko gai orokorrekin (osasuna, hezkuntza, kultura, aisialdia, garapen ekonomikoa, ingurumena...). Auzo-batzar bakoitzean hautatutako delegatuen kopurua pertsona parte-hartzaileen arabera zehazten da, jende-kopuru altuagoari ordezkari gehiago emanez, hots, hiritarren presentzia eta parte-hartze aktiboa bultzatuz.

Aurrekontua hiru etapa edo sasoitan egiten da. Martxotik uztailean lehentasun tematiko orokorrak ezartzen dira (hezkuntza, hirigintza, etxebizitza, garraioa...) eta barruti edo auzo/erregio bakoitzeko preferentziak ere. Batzar irekietan (auzoko banatan eta bost tematikoetan), non gizabanakoez aparte talde eta elkarten presentzia ere onartzen den (auzo-elkarteak, sindikatuak, talde kulturalak, alderdiak, ekologistak...), aurreko urteko inbertsio-planaren egoera fiskalizatzen da. Eta urte berriaren prozedura eta egutegia zehazten dira. Horretaz aparte, sasoi honetan ere delegatuen foroa aukeratzen da, prozesua koordinatuko duena.

Uztailean, auzo bakoitzeko preferentziak zehaztuta daudenean, Aurrekontu Parte-hartzailearen Kontseilua (COP) hautatzen da, 46 kiderekin, barruti bakoitze-ko bi (32), beste hamar batzar tematikoetatik (2x5) eta beste laurak horrela banatzen dira: bat Udal Langileen Sindikatuaren aldetik, beste bat Auzo Elkarten Federaziotik eta beste bi Udalaren izenean, baina azken bi horiek botorik gabe.

Adierazitako lehentasun tematikoak eta barruti bakoitzekoak ere kontuan harturik, udaleko GAPLANek lehengo aurrekontuaren matrizea egiten du. Bigarren etapa honetan ere, uztailetik irailera, udal-departamentuek, zinegotziek eta COPk berak proposaturiko aurrekontua onartu behar dute. Hemendik aurrera etapa teknikoago bat hasten da eta Inbertsioen Plana egiten da, aurrekontuan aurreiku-sitako gastu-politikak errespetatuz. Azken urteetan erabilitako irizpideak konbinatu dituzte banaketa egiteko: batzarretako lehentasunak, auzo edo barruti bakoitzeko hutsune edo defizitak —hau da, irizpide birbanatzaile bat— eta, hirugarrenez, auzo bakoitzeko biztanleen kopurua. Normalean lehengo bi irizpideak, populazioa-ren tamaina baino garrantzitsuagoak izan dira.

Porto Alegreko milioi eta erdi inguruko biztanleriatik 18.000k parte hartu dute azken urteetan, "lo que supone menos de un 5% de la población" *El País* kaze-taren azpitarretan⁸. Kontuan hartzen badugu lehen urtean, 1989an, mila pertso-na inguruk parte hartu zutela eta gradualki eta etengabe jende-kopurua handituz

8. Peregil F. (2005): "El mito del presupuesto participativo", *El País*, 2005/01/29.

joan dela, agian, iritzia bestelakoa izan daiteke. Ahots kritikoentzat ere, aurrekontu osoaren % 13 bakarrik bada eztabaidan egoten dena, gainerakoa konprometituta eta finkatuta dagoelako, ez da benetan ekimen eraldatzailea baina lorpenak agerian daude eta inork ez ditu zalantzan jartzen. Alde material edo azpiegituretan, hor daude eskola berriak, ospitaleak, asfaltatutako kaleak, estolderiak, etxebizitza eta garraio publikoa, zarama-politikak, museoak, alde zaharreko berriztapena, parke eta alderdiak, segurtasuna... hainbat arlo zeinetan hiri hau Brasilgo batez bestekoa baino altuago kokatzen den.

1988an Porto Alegreko udalak administrazioan gastatutako *real* bakoitzeko hiru, zerbitzuetan inbertitu zituen. Hamar urte geroago, 1998an, proportzioa zazpira igo da. Ez dugu ahaztu behar Porto Alegren, eta Belo Horizonten ere, aurrekontu parte-hartzailearen praktikak konfiantza sortu duela hiritarrengan eta finantza publikoen diru-biltzean, jabegoaren zergan adibidez, bildutako sosak gora joan dira. Gaur egun, etxebizitzaren %98k ur-hornidura daukate, estolderiak %60tik %80ra igo da, 29tik 1988an 86ra 1998an.

Aurrekontu parte-hartzailea demokrazia deliberatiboaren tresna aproposa izanik, PTren ordezkariak hiritik estatu federalera eramaten saiatu ziren, Estatuaren egitura guztietan bestelako gizarte eta giza harremanak izateko instrumentu egokia zela erakutsi nahiz. 1998an Olivio Dutra-k Rio Grande do Sul (RS) estatuko gobernadore-kargua eskuratu zuen eta, nahiz eta Porto Alegren aurrekontu parte-hartzailearen esperientzia hamarkada batez praktikara eraman, arazo eta zailtasun gehiago izan ziren Estatu federalean aurrekontua martxan jartzeko. RSn 10 milioi biztanle ziren eta 497 udalerrri, eta PTk 35 udal garrantzitsuetan zeukan alkatetza eta *vice-prefectura* beste 6 udalerritan. Indar horiekin hasi ziren, baina Estatu federalaren egoera ekonomikoa larria zen, zorrak oso altuak eta gastu burokratikoak ere. Urte askotako praktika klientelistek ez zuten tresna demokratiko berri honen sarbidea errazten. Eskuineko alderdiek ez zuten ontzat ematen ekimen hau eta ospea kendu eta ordezkagarritasunaren eskubidea kontrajarri zioten. Tribunaletara ere jo zuten. Diputatu batek helegitea ipinitakoan, hasierako urratsak ematen ari zirenean gastuen lehentasunak ezarriz, Tribunalek kautelazko etenaldia dekretatu zuten eta urte eta erdian Estatuaren eraikinak eta lokalak ezin izan ziren erabili zuzeneko demokraziaren praktika horietarako. Horrek, aldiz, ez zuen prozesua geldiarazi.

Parte-hartze Herritarraren Foro *Gaúcho* delakoa tresna berezia izan zen aurrekontu parte-hartzailearen dinamikak aurrera jarraitzeko, erantzun organizatibo egokia emanaz, non zinegotziek, delegatuek, alkateek eta herri-elkarteek gainditu egin zuten epaileen agindua batzarrak eginez eta konpromisoak hartuz.

Prozedurazko arazoaren gaineratik finantza-errekurtsoak ere eskasak ziren, 751 milio *real* (R\$), hau da, estatuaren aurrekontuaren % 8,8 2000. urterako, gainerako guztia konprometituta baitzegoen. Neurri ekonomiko berriak, aurrekontutik kanpokoak zein politika fiskalak heldu ziren estatuaren kudeaketa publiko berria laguntzera gizartearen kontrolarekin, estatuaren eta udalerrien arteko harremanak berrituz, zerbitzu publikoak hobetuz eta errenta zein enplegu berriak sortuz.

Aurrekontu parte-hartzailea - Rio Grande Do Sul

	1999	2000	2001	2002
PARTE-HARTZAILEAK	188.528	281.926	378.340	333.040
DELEGATUAK	8.460	13.987	18.601	16.145
BATZARRAK	644	670	735	775

Rio Grande do Sulen bi prozesu izan ziren batera; bata, erregional edo lurraldekoa, eta bestea, tematiko edo gaien arabera. Hemen ere martxoan hasten ziren Udal Batzar Publikoak (497 udalerrriak) lehentasunak markatuz (nekazaritza, hezkuntza eta osasuna 2000. urtean) eta uztailean ordezkariak hautatzen ziren; hortik aurrera, batzar erregional eta tematikoak egiten ziren (Estatu osoa 22 errejiotan banatuz) non erdiko gaiak erabakitzen ziren (nekazaritza, errenta/enplegua eta garraioa 2000. urtean).

Oso deigarriak dira parte-hartzearen kopuruak prozesu boluntario, unibertsal, zabal eta asistentziala babesteko. Hemen ere jende gehiago bilduz gero, udalerrriak delegatu gehiago irabaz zezakeen Aurrekontuaren Kontseilu Estatalean, (204 kide) non irailean ekoizten baitzen inbertisioen plana, gero Legebiltzarrak onartu behar zuena. Hiritik landa, Estatu federalean ere, ekimen demokratiko hau eramangarria dela erakutsita gelditu da.

Zenbait irakaspen

Brasilen ikus daitekeenez, aurrekontu parte-hartzailea lanabes demokratiko bat dugu, demokrazia ordezkagarriaren prozedurak eta instituzioak kolokan jarri gabe, ariketa demokratiko bizigarri bihurtu dena eta Estatuaren eta gizartearen arteko harremanak berritu nahi dituen, gizartearen eta Estatuaren arteko oreka bilatuz⁹, ez liberalismoak exijitzen duen Estatu minimalista ezta sozialismo burokratikoak nahi duen Estatu monopolistikoa ere.

Herri-partaidetza modu zuzen eta unibertsalean gauzatzen da, boluntarismoz baina Estatuak susperturik ere, ez herri-elkarteen bidez soilik, —nahiz eta horiek ere presente egon— baizik eta herritar xumeek, gizabanako bezala, finantza publikoen erabilera kontrolatzeko duten helburu zehatzaren bidez. Hots, eredu demokratiko misto edo hibrido honetan herritar xume askok errekurtsu estatalen kudeaketa deszentralizatua ikasten du, mendetan zehar aditu, peritu eta espezialisten esku egon dena eta agintari politikoen kontrola soilik eduki duena. Eta espezialistak erakutsi du hau modu masibo eta asanblearioan egin daitekeela, baldin eta hauteskundearen bitartez herriaren kontrola eta esku-hartzea onartzen bada.

Halatan ere, teknika demokratiko honen arriskuak handiak dira. Hainbeste jende mobilizatzea ez da erraza eta hori aurrera ateratzeko arerio sendoak izaten dira administrazio geldo eta burokratikoak, malgutasunik gabeko prozesu fiskal eta legalpean daudenak. Administrazioako funtzionarioak eta pertsonal teknikoa balazta handia izan daitezke, beren burua eguneroko lanetik alboraturik ikusten

9. Estatuaren eta gizartearen arteko harreman orekatuen aldarrikapena Brasilgo Konstituzioaren (1988) lehen artikuluan datza: «Todo poder emana do povo, que o exerce por meio de representantes ou *directamente*, nos termos desta Constituição».

baldin badute. Enpresaburuen taldeak eta komunikabide nagusiak ere praktika hauen aurkakoak izaten dira, zeren pribilegiozko egoera galtzeko zorian egoten baitira aurrekontuen banaketan.

Beste mota bateko arriskua talde sozialen arteko desberdintasunen ingurukoa da. Auzo eta hiritarren artean. Pobreek gutxiago hartzen dute parte, denbora eta ahalmen murriztagoa daukate. Emakumeak eta gutxiengo etnikoak ere egoera defaboragarrian daude eta horrek esan nahi du talde sozial batzuek abantailak dauzkatela parte hartzeko orduan.

Hirugarren arriskua, Administrazioaren kooptazioa dugu, hau da, estatuaren aurrekontuen kontrola ahalbidetu beharrean, Administrazioak herri- eta gizarte-taldeen kontrola lor dezake, eta ondorioz, buruzagien asimilazioa eta jardueren epeltzea.

Kontuan hartu behar dugu arrisku hauek ez datozela banan-banan eta normalean elkarren eskutik datozela hirurak. Hala eta guztiz ere, Porto Alegren hamasei urte jarraian arazo hauei irtenbide egokia eman diete.

Arazo edo arriskuen kasuan gertatzen den bezala, soluziobideak ere batera joan daitezke. Porto Alegren alternatiba politiko estrategikoaren bilaketak milaka herritarren mobilizazioa ekarri du, gobernuari parte-hartzea eta gardentasuna aldarrikatuz eta auzo pobreenetan inbertsioak lortuz. Auzo txiroen mobilizazioak auzo eta herritarren arteko desberdintasunak areagotzea ekidin du eta *status quo*ari kontrapisua eginez pribilegiatuen abantailak ez dira igo.

Kooptazioaren orde, Porto Alegren ikusi duguna izan da abangoardia politiko bati emandako laguntza eta oniritzia bere gobernu-programa gauzatu ahal izateko, baina ez modu *segidista* eta akritiko batean, aldiz, herritarren foro horizontal errebindikatiboak sortuz, gehienak herritar pobreak izanik; kultura politiko berri bat sustatuz eta populazioaren sektore ahaztuak borroka politikorako irabaziz. Aktiboenei eta gehien mobilizatzen direnei lehentasuna emanez, baina elkarte edo talde baten siglen atzetik etorri beharra izan gabe.

Beraz, emaitza hirukoitza izan da. Herri-mobilizazioak gobernu-ekintza indartu egin du. Mendetan zehar bazterreraturik egon direnak prozesu demokratikoan barneratu dira eta talde eta elkarte sozial berriak jaio dira euren aldarriak duintasunez defendatzeko, gobernariak euren planteamendu eta lehentasunak kuestionatzen dizkietenean ere.

Bibliografia

- Baiocchi, G. (2004): "Porto Alegre. El dinamismo de los no organizados", in D. Chavez eta B. Goldfrank (arg.), *La izquierda en la ciudad. Participación en los gobiernos locales de América Latina*, Icaria, Bartzelona.
- Chavez, D. eta Goldfrank, B. (2004): *La izquierda en la ciudad. Participación en los gobiernos locales de América Latina*, Icaria, Bartzelona.
- de Souza, U. (2000): "El presupuesto participativo, un concepto político universal" in T. Genro eta U. de Souza, *El Presupuesto Participativo: La experiencia de Porto Alegre*, Ediciones del Serbal, Bartzelona.
- Dieterich, H. (2000): *Identidad Nacional y Globalización. La Tercera Vía*, Abril, Habana.

- Genro, T. eta de Souza, U. (2000): *El Presupuesto Participativo: La experiencia de Porto Alegre*, Ediciones del Serbal, Bartzelona.
- Goldfrank, B. (2004): "¿El final de la política o un nuevo comienzo por la izquierda", in D. Chavez eta B. Goldfrank (arg.), *La izquierda en la ciudad. Participación en los gobiernos locales de América Latina*, Icaria, Bartzelona.
- Harnecker, M. (1993): *Alcaldía de Porto Alegre: Aprendiendo a gobernar*, MEPLA, Habana.
- Harnecker, M. (2000): *La izquierda en el umbral del siglo XXI. Haciendo posible lo imposible*, Siglo XXI, Madril.
- Kunrath, M. eta Sacco, F. (2003): "El presupuesto participativo en Brasil: Un abordaje crítico sobre la experiencia de Porto Alegre, RS", in E. Ganuza eta C. Alvarez (koord.) *Democracia y presupuestos participativos*, Icaria, Bartzelona.
- Oliveira, F. (2001): *Atas da Revolução. O Orçamento participativo de Sao Paulo*, argitaratu gabea.
- Ramonet, I. (2001): *El consenso de Porto Alegre*, El País, 2001/02/12.
- Rosa, M. eta Encina, J. (2004): "Democracias participativas desde las praxis locales", in Democracias Participativas e intervención social comunitaria desde Andalucía. Construyendo ciudadanía /5. Atrapasueños & Universidad Pablo Olavide, Sevilla.
- Sánchez, A. (1991): "Democracia, Revolución y Socialismo", *Travesía*, 1, martxo.
- Santos, B. (1998): "Participatory Budgeting in Porto Alegre: Toward a redistributive democracy", *Politics and Society* Stoneham.
- , (2003): *Democracia y participación. El ejemplo del Presupuesto Participativo*, El Viejo Topo, Bartzelona.
- Stolowicz, B. (2004): "La izquierda latinoamericana. Gobierno, elecciones y proyecto de cambio", in D. Chavez eta B. Goldfrank (arg.), *La izquierda en la ciudad. Participación en los gobiernos locales de América Latina*, Icaria, Bartzelona.
- Torres, A.C. eta de Grazia, G. (2003): *Experiencias de Orçamento Participativo no Brazil (1997-2000)*, Fórum Nazional de Participação Popular- Ed.Vozes. Petrópolis, RJ.

